



LAN MONOGRAFIKOA

Irakasgaia: **KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ ARLO JURIDIKOAN**
(Leire Imaz Zubiaurren tutoretzapean)

ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA

Irati MALATSETXEBARRIA ELIZEGI

AURKIBIDEA: I. Kontzeptua.- II. Eskubidearen aitortza nazioarteko ordenamenduan.- III. Espainiako ordenamendua: 1. Etxebizitzarako eskubidea konstituzio-printzipio gisa.- 2. Etxebizitzarako eskubidea: eskubide subjektibo bat gehiago.- 3. Eskubidearen edukia.- IV. Ondorioak.- Bibliografia

I. Sarrera

Nabarmentzekoa da XXI. mendean ez dagoela etxebizitza bat izateko eskubidea bermaturik bere burua Estatu sozialtzat duen Espainian. Datu harrigarria dugu hori, kontuan hartuz gero pertsonaren ongizatea bermatzeko ezinbesteko elementutzat jo dela aspalditik¹ hainbat ordenamendutan.

Baina azter dezagun egun Espainiari aplikagarri zaion araudian nola formulatzen den etxebizitzarako eskubidea, nazioarteko legezko eszenatokiaren ondotik.

II. Eskubidearen aitortza nazioarteko ordenamenduan

Labur bada ere, aipamena egin behar zaio nazioarteko ordenamenduari. Espainia nazioarteko komunitatearen kide izaki, berau erregulatu nahiz zuzentzen duten arau eta printzipioei loturik beharko bailuke beste edozein Estatuk bezala.

Nazioarteko Komunitatean etxebizitzarako eskubidea aldarrikatzen duen dokumentu nagusia eta ziur aski garrantzitsua Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala da, 25.1 artikuluan honakoa dioelarik:

"Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berati eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere".

¹ Eskubidearen aurrekari garaikide nagusia, 1919ko Weimarko Konstituzioaren 155. artikuluan aurkitzen da: "El reparto y utilización del suelo serán vigilados por el Estado en forma que se impida el abuso y se tienda a **proporcionar a todo alemán una morada sana** y a todas las familias alemanas, especialmente a las de numerosa prole, una morada y un patrimonio económico que responda a sus necesidades". Artikulu honek Estatuari aitortzen zion alemandar orok etxebizitza "sanoa" izatea bermatzearen funtzioa, familia bakoitzaren beharrezanekin bat zetorren ondasun ekonomikoa emateaz gain.





Hortaz, 1948an Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak emandako ebazpen honek, gizateria guztiari zabaltzen dio lehenago Weimarko Konstituzioan² alemani aitortutako eskubidearen titular izateko ahalmena. Natura orientatzailea izanagatik ere, aski ezaguna da dokumentuak nazioartean duen pisua. Azpimarragarria da goragoko artikuluan bizimodu egokia izateko eskubidearekin nahiz familiaren osasun eta ongizatearekin lotzen dela etxebizitzarako eskubidea, horiek erdiesteko *sine qua non* baldintza balitz bezala, zerrendatutako beste elementuekin batera.

Giza Eskubideen Aldarrikapenaren antzeko formulazioarekin aitortzen da etxebizitzarako eskubidea 1976an indarrean sartu zen Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 11.1 artikuluan³. Beste behin, bizi-maila egokia izatearekin lotzen da.

Europar Batasunaren testuinguruan, berriz, etxebizitza-laguntzak eskuratzeko eskubidea aitortzen zaie baliabide nahikorik ez duten guztiei Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean⁴.

III. Espainiako ordenamendua

Espainiar Estatuko barne ordenamenduaren lege gorenak, 1978ko Konstituzioak, 47. artikuluan aitortzen du etxebizitzarako eskubidea:

"Espainiar guztiek dute **etxebizitza duin eta egokia** izateko eskubidea. Botere publikoek bideak jarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, eta dagozkion arauak ezarriko dituzte, interes orokorrari begira arautuz lurzorua erabilera, espekulaziorik izan ez dadin. Erkidegoak parte izango du erakunde publikoen hirigintzak eragiten dituen gainbalioetan".

1. Etxebizitzarako eskubidea konstituzio-printzipio gisa

Artikuluaren edukia bera behatzen hasi aurretik garrantzitsua da xedapenak Konstituzioan duen tokia aztertzea, bere eraginkortasuna eta helmena hobeto ulertzeko.

Espainiar Estatua definitzen duen formula politikoan, besteak beste, printzipio soziala gehitu zen (EK 1.1 art⁵). Hortaz, Estatua herritarren babesle bihurtzen da, bere funtzio tradizionalei politika sozialaren egikaritzea ere gehituz politika ekonomikoaren

² Weimarko Konstituzioaren 155. art.: "El reparto y utilización del suelo serán vigilados por el Estado en forma que se impida el abuso y se tienda a **proporcionar a todo alemán una morada sana** y a todas las familias alemanas, especialmente a las de numerosa prole, una morada y un patrimonio económico que responda a sus necesidades".

³ Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 11.1 art.: Itun honetako estatu alderdiek aitortzen dute pertsona orok duen eskubidea, norberak eta norberaren familiak bizitza-maila egokia izateko, baita elikadura, jantzi eta **etxebizitza egokiak** ere, eta bizitza-baldintzak etengabe hobetzeko.

⁴ Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 34.3 art.: *Gizarteko bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurka borrokatzeko*, Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du *gizarte-laguntzak eta etxebizitza-laguntzak izateko eskubidea*, baliabide nahikorik ez duten guztiei bizimodu duina bermatzeko, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokoarek ezarritako moduan.

⁵ EK 1.1 art.: *Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamendu juridikoaren balio gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa.*



testuinguruan. Dimentsio sozial honek, sarritan herrialdez herrialde pertzepzio ezberdin batetik landu denak, ongizate estatu deiturikoa beharko luke funtsean helburu. GARCÍA-PELAYOK⁶, printzipio sozialari ondorengo ezaugarriak esleitu zizkion:

- Estatuaren funtzioa da oinarrizko beharrizanak herritar guztiei bermatzea eta berdintasuna lortzea galarazten duten oztupoak desagerrarazi edo lautzea.
- Herritarrek bizitzeko minimoa eskuratzeko eskubidea dute, norberaren duintasuna bermatze aldera eta haien beharrizan pertsonal eta familiarak kontuan harturik. Botere publikoen ardua izango da azaldutakoa erdiesteko beharrezko legegintza-nahiz administrazio- neurriak hartzea.
- Estatuak uneoro zaindu beharko ditu bizi-gutxiagotasun egoeran aurkitzen diren pertsonak nahiz taldeak.
- Estatuaren funtzioa ere bada herritarrek haien kabuz kudea ezin ditzaketen ondasun eta zerbitzuen erabilpenik onena egitea.

Horrela, Espainiak Estatu sozial gisa herritarren arteko berdintasun materiala sustatu behar duela jarri zuen mahai gainean Konstituzio Auzitegiko Presidente izandakoak. Ez bakarrik eskubideak aitortuz estatu liberalean gertatzen zen legez, baizik eta horiek lortzeko neurriak hartuz, berebiziko arreta jarritz kalte berenengan. Oinarrizko beharrizanak bermatuak beharko lituzkete herritar guztiek, eta gorago ere nazioarteko testuen harira adierazi den gisan, etxebizitza funtsezkoa da oinarrizko beharrizan horiek asetzeko.

Konstituzioaren baitan, 47. artikulua I. Tituluko III. Kapituluako artikulua guztiak bezala, definizioz *Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak* diren eskubideekin batera dago formulatuta. Multzo horren arazoa eskubide horiek bermatuko dituzten egitura juridikoak aurkitzean datza⁷. Izan ere, EK 53.3⁸ artikulua arabera, herritarrek ezingo dute zuzenean auzitegietara jo eskubide horiek bermatuak izan daitezten, haien aplikazio nahiz gozamen eraginkorra lortzeko ohiko legedia edo interpretazio judiziala baliatu behar direlarik. Esan daiteke eskubide horiek guztiak ez direla ordenamenduan kristalizatuak aurkitzen, Konstituzioak berak printzipio gisa aipatzen baititu. Hortaz, hartzaile zuzen eta berehalakoak herritarrek izan ordez, botere publikoak direla dirudi, nahiz eta formalki eskubide gisa formalizatuak egon. Konstituzio Auzitegiak⁹ ere, ordenamenduaren printzipio gidari gisa jotzen du etxebizitza eskubidea.

⁶ Ezaugarriok aurki ditzakegu, GARCÍA-PELAYORi erreferentzia eginez, Francisco BALAGUER CALLEJÓNek koordinaturiko hurrengo obran (2010): *Manual de Derecho Constitucional*, 2. liburukia, Tecnos, Madril, 315-316 orr.

⁷ ABRAMOVICH, Víctor, COURTIS, Christian (2010): "Apuntes sobre la exigibilidad judicial de los derechos sociales", *Teoría y Crítica del Derecho Constitucional*, 2. liburukia- Eskubideak, Abeledo Perrot, Buenos Aires, 973-974. orr.: "(...) aunque la mayoría de las Constituciones de América latina, la de España y la de Portugal estén alineadas dentro del denominado constitucionalismo social, se ha repetido hasta el hartazgo que las normas que establecen derechos sociales son sólo normas programáticas, que no otorgan derechos subjetivos en el sentido tradicional del término, o que no resultan justiciables. De este modo, se traza una distinción entre el valor normativo de los denominados derechos civiles - o derechos de autonomía, o derechos-libertades-, que sí se consideran derechos plenos, y los derechos sociales, a los que se asigna un mero valor simbólico o político, pero poca virtualidad jurídica".

⁸ EK 53.3 art.: *Hirugarren kapituluako printzipioak aitortuz, errespetatuz eta babestuz zertuko dira legegintza positiboa, praktika judiziala eta botere publikoen jardura. Printzipiook garatzen dituzten legeek xedatzen dutenarekin bat etorri baino ezin alegatuko da balakorik jurisdikzio arruntaren aurrean.*

⁹ KAE 222/1992, 1992ko abenduaren 11koa: "(...) consideramos es una de las posibles modalidades de realización del principio rector según el cual "todos los españoles tienen derecho a disfrutar de una vivienda digna y adecuada" (art. 47 C.E.), **principio que exige del legislador y de este Tribunal, al controlar sus normas- una atención específica a los imperativos que sobre el proyecta el art. 14 de la Norma fundamental (...)**".





Hartara, I. Tituluko III. Kapituluako artikulua, hainbat azpimultzotan sailka daitezke: estatu-ekintzaren xede eta helburu orokorrak ezartzen dituztenak, interes orokorreko ondasun jakin batzuk babestearen ingurukoak, herritarrak kontsumitzaile nahiz erabiltzaile gisa babesten dituztenak, familiaren babes aurreikusten dutenak, etab. Hala, 47. artikulua, pertsonak bizitza duina izateko beharrezkoak diren ondasun material eta inmaterialetan galdatzaile gisa aurreikusten dituen azpimultzoan koka genezake. Etxebizitzaz ari garenean, oinarritzko eta funtsezko ondasun material bati buruz ari baikara. Duintasun hitza aipatzen du 47. artikulua ere. Etxebizitza *duin* eta *egoki* baten faltan, pertsonaren osotasun fisikoa arrisku larrian jartzeaz gain, norbanakoen duintasunaren aurkako tratu gisa kalifika liteke, zeina oinarritzko eskubidea den Espainiako Konstituzioan¹⁰.

2. Etxebizitzarako eskubidea: eskubide subjektibo bat gehiago

Goiko atalean dagoeneko adierazi da etxebizitzarako eskubidea botere publikoen jarduera gidatu beharko lukeen printzipiotzat hartzen dela Konstituzioan. Baina zenbait egileren aburuz (LÓPEZ RAMÓN, GÓNZÁLEZ PÉREZ, kasu), berau eskubide subjektibotzat jo daiteke: testu-konstituzionalaren interpretazioa eginez edo gaiari buruz egindako legegintza garapena baliatuz, adibidez.

Interpretazioari dagokionez, eta LÓPEZ RAMÓNen¹¹ iritziarekin bat eginez, EK 53.3 artikulua etxebizitza eskubidea printzipio gisa hartzeko erabiltzen den bezala, kontrako argudio emateko ere balia daitekeela defendatu nahi da hemen. Izan ere, xedapena hitzez hitz aztertuz gero, honako ondorio hauek hel gitezke: a) I. Tituluko III. Kapituluako printzipioak gidariak direla botere politiko, judizial nahiz legegilearentzat; baina b) horrek ez duela esan nahi Kapitulu horretako xedapen guztiek printzipioak formulatzen dituztenik. Beraz, ondoriotzat har liteke, Konstituzioaren atal honetan kokatutako printzipioei baino ez zaiela ukatuko zuzenean auzitegietan argudiatuak izateko eskubidea, Kapitulu horretan jasotako eskubideei buruz ezer esaten ez delarik. Zehazki hori da azpimarratu behar dena: 47. artikuluan adierazitakoa eskubidea dela, eta ez printzipioa. Ez dirudi argudio juridiko handirik dagoenik Konstituzioan ageri diren eskubideei eskubide izaera ez aitortzeko. "Eskubide" hitza, hizkera juridikoan eskubide subjektiboaren baliokidea da. Ondorioz, eskubide horien benetako babes judiziala aurreikusten ez duen Konstituzioaren interpretazioak 24.1 artikuluan¹² xedatutako oinarritzko eskubidea alboratzen du (eskubide eta interes legitimoen babes aipatzen baita bertan).

Baina Konstituziotik haratago, badira etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen duten zenbait oinarri juridiko-positibo. Lehenak, autonomia estatutu batzuetan eman dira (Katalunia, Balear irlak eta Valentzia). Hauek *Eskubide eta betebeharren* tituluaren kokatu dute, printzipio gidarietatik modu argian bereiziz. EAEko Autonomia Estatutuan formulatzen ez

¹⁰ EK 15. art.: *Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin pairaraziko zaio, ezin kasutan, ez torturarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo tratuerik. Ez ezartzen da heriotza-zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra-denborarako.*

¹¹ LÓPEZ RAMÓN, Fernando (Koord.): *Construyendo el derecho a la vivienda*, Marcial Pons, 2010, Madril, 13-16 orr.

¹² EK 24.1 art.: *Pertsona guztiek eskubidea dute epaileek eta auzitegiek benetan babes eman diezaieten beren eskubide eta interes legitimoen erabileran, eta ezin kasutan ezin gertatuko da defentsa-gabeziarik.*





den arren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak¹³ herritarrei etxebizitzarako eskubidea bermatu beharra aitortzen du. Espainiako 2008ko Lurzoruaren Legeak¹⁴, are modu argiagoan adierazten du herritar guztiek etxebizitza duin bat izateko duten eskubidea. Xedapen horien formulazioetan ez dago arrazoirik pentsatzeko eskubide subjektibo baten aurrean ez gaudenik. Hau da, ordenamendu juridikoak babestutako botere egoera baten aurrean, zeinaren edukia bide judizialean exijigarria izango den. Lege mailako arauetan aitortua izan da, eta ondorioz, EK 53.3 artikulua araberako jurisdikzio arruntera jo ahalko litzateke eskubide horien egikaritzea galdatzera lehenago aipatu ditugun xedapenak oinarritzat harturik.

Argi dago eskubide honek ordenamendu juridikoan duen tokia iluna dela¹⁵. Doktrinaren baitan ere iritzi aniztasuna da nagusi eta ez da oso argi geratzen zein formula balia dezaketen herritarrek eskubidea egikaritzeko: zuzenean argudia dezaketen auzitegietan edo aurretiaz garatutako lege xedapenen edukia betearaztea baino ezin dezaketen galdatu. Zaila gertatzen da ulertzea zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa beharko lukeen horrek zergatik erabiltzen dituen formula lauso eta nahasgarriak pertsonaren duintasun eta ongizaterik oinarritzat harturik lotutako eskubide bat egikaritzeko orduan. Segurtasun juridikoa kolokan jartzen da horrelako egoeretan, herritar asko eta asko babesgabe uzteko arriskua sortuz.

3. Eskubidearen edukia

Barne arau gorenak etxebizitza *duin eta egokia* aipatzen du, botere publikoei agintzen zaielarik bermatu beharreko bizitokia ezin dela hala modukoa izan. Ondorioz, ez dela norbanakoek teiltatu soil bat izatea bakarrik babestu behar ulertzen da, oinarritzat ongizate maila erdiesteko beharrezko bizitokia bermatu behar delarik. Ongizate maila hori zein den determinatzea, ordea, unean uneko legediari dagokio. Konstituzioa horretan ere ez da argia izan eta gutxiengo parametroak ere ez ditu aurrezari. Bestalde, espekulazioa ekiditea aipatzen da etxebizitzarako eskubidea bermatzeko bide gisa. Etxebizitzaren desmerkantilizazio saiakera xume baten aurrean gaudela ere esan liteke, beraz. Azken urteetako etxebizitza politikei gainbegiratu ematen zaien unean ohartuko gara, ordea, espekulazioa ekidin ez ezik, berau sustatu ere egin dutela botere publikoek. *Modus operandi* horren ondorioz gordinenak egun pairatzen ari gara.

¹³ Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, EAE ko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, 4.3 a) art.: *Interes publikoaren aintzat hartuko bada, hirigintzaren antolamenduak honako eskubide hauek bermatu beharko ditu bereziki: **Pertsona orok duina eta bere beharretarako egokia den etxebizitza** bat eskuratzeko duen eskubidea. Horretarako, hiri-administrazioek lurzorua planifikatu, sailkatu, programatu eta izendatu beharko dute babes-ofizialeko araubide bati atxikitako etxebizitzak egiteko eta gizartearen beharrezko erantzuteko bizitokiak eraikitzeke.*

¹⁴ Ekainaren 20ko Testu bategina, 2/2008 LegED-ak onartua, 4.a) art.: **"Todos los ciudadanos tienen derecho a: Disfrutar de una vivienda digna, adecuada y accesible, concebida con arreglo al principio de diseño para todas las personas, que constituya su domicilio libre de ruido u otras inmisiones contaminantes de cualquier tipo que superen los límites máximos admitidos por la legislación aplicable y en un medio ambiente y un paisaje adecuados."**

¹⁵ APARICIO PÉREZ, Miguel A., BARCELÓ I SERRAMALERA, Mercè (Koord.) (2012): *Manual de Derecho Constitucional*, Atelier, 2. edizioa,artzelona, 811. or.: "El control jurídico de esta obligación de los poderes públicos se revela, sin embargo, ciertamente complicado".





GONZÁLEZ PÉREZ¹⁶ azpimarratzea gustatzen zaion bezala, 47. artikulua ez du etxebizitza baten jabetza eskuratzeko eskubidea aitortzen, ez behintzat espainiar ordenamenduan. Artikuluaren gaztelerazko hitzez hitzeko formulazioak ere ez du ohiko etxebizitzaren jabetzarako eskubide subjektiboa adierazten ("*Todos los españoles tienen derecho a disfrutar de una vivienda digna y adecuada*"). Ez dirudi beharrezkoa denik ere, Europako herrialde askotan biztanleriaren oso ehuneko txiki batek baino ez baitauka bizilekua jabetzan (Danimarka, Suitza, Alemania, kasu) eta Espainian baino ziurtatuago dagoen eskubidea da bizitoki duin bat bermatzearena.

Baina jabetzari loturik egon ala egon ez, botere publikoek lehenik eta behin etxebizitzarako sarbidea ahalbidetu behar dutela ulertzen da. Bestela esanda, botere publikoek etxebizitza bat eman beharko diete eskuratzeko zailtasunak dituztenei. Nortzuk diren zailtasunak dituzten pertsonak, zein baldintzatan eskaini behar diren bizitoki horiek? Berriro ere, legegintza garapenaren esku geratuko da eskubidearen titularrak nortzuk diren zehaztea, unean uneko botere legegileak aukera oso ezberdinak emango dituelarik. Baina inondik inora gertatu ezin dena da, legegintza garapen horren argitasun faltak eskubide honen egikaritza bazterterik. Doktrinaren gehiengoaren aburuz¹⁷, etxebizitza sarbiderako eskubidea bizitoki bat ez dutenei edo berau eskuratzeko baliabiderik ez dutenei baino ezingo zaie eskaini. Hots, ez da edozein herritarri bermatu beharreko eskubidea. Horrek noski, hartzaileak zehatz-mehatz nortzuk diren determinatu beharra dakar, irizpide koherente eta finko batzuk ezarriz. Errealitatetik oso urrun dagoen egoera da, botere publikoek babestutako etxebizitzak eskuratzeko unean zalantza eta eztabaidagai izaten baitira beti (bai eta zenbait administrazio errekursoren objektu ere). Gainera, badira kontrakoa adieraziz altxatzen ari diren ahotsak¹⁸ ere. Hortaz, eskubidearen titulartasuna eztabaidagaia da oraindik.

IV. Ondorioak

Etxebizitzarako eskubidearen erregulazioaren argitasun falta, nabarmena da oso. Zalantzarria da bere edukia, titulartasuna, babes juridikoa, etab. Finean, duen garrantzia dela eta, araudi oso eta zehatzago baten beharra du, baldin eta herritarrek jakingo badute zein den eskubideak ematen dien babesa eta nora jo behar duten berau egikaritzeko.

Bibliografia

¹⁶ GONZÁLEZ PÉREZ, Jesús: *El Derecho a una vivienda digna en la ley de suelo de 2008*, Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España, 2008, Madril, 16-17.orr.

¹⁷ LÓPEZ RAMÓN, Fernando (Koord.): *Construyendo el derecho...*, zita, 18. or.: "Si sujeto activo del derecho de acceso a la vivienda no puede ser cualquier ciudadano, sino únicamente quien carezca de vivienda y de medios para lograrla, a partir de ese dato elemental surgen abundantes interrogantes sobre el nivel de renta, las condiciones familiares, el arraigo, ..."

¹⁸ APARICIO PÉREZ, Miguel A., BARCELÓ I SERRAMALERA, Mercé (Koord.) (2012): *Manual de Derecho Constitucional*, Atelier, 2. edizioa, Bartzelona, 810. or.: "Se trata, por tanto, de un derecho que la norma fundamental reconoce en clave universal y no únicamente a aquellos sectores de la población que no tengan recursos para satisfacer sus necesidades por medio del mercado".



III. Ikasleen ekarpenak



7

- APARICIO PÉREZ, Miguel A., BARCELÓ I SERRAMALERA, Mercé (Koord.) (2012): *Manual de Derecho Constitucional*, Atelier, 2. edizioa, Bartzelona.
- BALLAGER CALLEJÓN, Francisco (Koord.) (2010): "Constitucion económica y derechos sociales", *Manual de Derecho Constitucional*, 2. liburukia, Madril.
- GAY, Laurence (2009): " "Droit au logement" et droit de propriété: un conflit a reconsidérer", *Droit au logement, droit du logement*, Jean-Michel Belorgeyk zuzendua, Conseil D'Etat-La Documentation Française, Paris.
- INURRIETA, Alejandro, IRIGOIEN, Edurne, MURGUI, Nacho, NAREDO, José Manuel (2013): *Qué hacemos con la vivienda*, Akal, Tres Cantos.
- LÓPEZ RAMÓN, Fernando (Koord.) (2010): *Construyendo el Derecho a la vivienda*, Marcial Pons, Madril.
- PISARELLO, Gerardo, Observatorio de Derechos Humanos (DESC) (2003): *Vivienda para todos: un derecho en (de)construcción*, Icaria, Bartzelona.
- PONCE SOLÉ, Juli (2002): *Poder local y guetos urbanos. Las relaciones entre el Derecho urbanístico, la segregación espacial y la sostenibilidad social*, INAP.
- VAQUER CABALLERÍA, Marcos (2011): *La eficacia y la efectividad del derecho a la vivienda en España*, Iustel, Madril.
- KAE 222/1992, 1992ko abenduaren 11koa.